


Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko apirilaren 14a / VI. urtea / 174. zenbakia



Javier Etxeberria, Donostiako Ibaetako kanpusean.

EDURNE KOCH

‘Cosmopolitas domésticos’ izeneko saiakerarekin irabazi du Javier Etxeberria filosofia irakasle iruindarrak Anagrama izeneko sari ospetsua. Logikaren filosofian eta Leibniz-en obran aditua, telebistak, ordenadoreek eta sare telematikoez gure eguneroko bizitzan izan dezaketen eraginek famatu egin dute, ‘Telépolis’ liburuan aipaturiko hainbat ideia landu baititu bertan.

Javier Etxeberria: telefilosofia

Egun Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Etxeberria dagoeneko martxan den iraultza informatiko honen ondorioez mintzatu da, eta egokitu beharra azpimarratu du behin eta berriro. «Aldaketara egokitzeko izango dugun gaitasunaren araberakoa izango da gure garapenaren neurria». Filosofia huts-hutsetik eguneroko gai bati heldu dio honetan nafarrak: telefilosofia?

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Ekintzetara

Nik beste zerbait neukan gogoan paperera eramateko modukoa idazten hasterakoan, baina nola eutsi Nafarroako etxe guztietan aste honetan mintzagai bilakatu den lurrikara politikoaz mintzatzeko tentaldiari? Lurrikara, bai, izan dira zalantzarik gabe asteartekoak, are gehiago haintzat hartzen badugu lur mugimenduen artean suertatu zirela gertaerak. UPNko bere militantzia eguerdian utzi eta arratsaldeko 7etan CDNko lehen buruzagi gisara agertu zitzaigun Juan Cruz Alli. Tartean, bostak eta seirak aldera, ederki sumatu genuen Iruñerrian bi lurrikara. Sorginkeririk ba ote da Alliren inguruan —pentsatu nuen— gure Pirinioa mugitzeko gauza izan daitekeena?

Aspaldi honetan gurean horren aspergarri bihurtua zen bizitza politikoari ez zaizkio gaizki etorri azkenaldiko astinketak. Partidu nagusi bilakatutakoetan nahiko ika-mika sortu dira eta larrialdiak iritsi zaizkie, gero! Goitik behera erori dira batzu muturretik lur azpiraino esanen nuke. Auskalo ze kobazuloetan dagoen galduta Urralburu jauna txit-dotore eta harro izandakoa, abertzale eta euskaltzaleon zigortzaile eta berrero ohia, interes publikoaren alde jokatuta behar bestelakoetan ibilitakoa.

Eskuin arkaikoaren txanda da orain. Dena hain lotua eta bildua zegoenean, krask! hautsi dena eta zentzutik atera zaio oraingoan haren kontra norgehiagokan arituko dena. Eta PSN eta UPN euskaltzaleon etsai amorratuak izanik, zertan kezkatu behar gaituzte haien komeriek? beti galtzaile izan garenontzat arerioen kalteak bost axola. Ederki zapaldu gaituzte goian zeudenean, ez gara beraz orain negar zotinkan hasiko Urralburu, Del Burgo eta Aizpuru larridandean.

Esperantza pittin bat ere izateko eskubidea badugu, gainera. Zapalduok horixe da azkeneko galtzen duguna. Oraingoan dinosauruak bazterretan utzi ditu Juan Cruz Allik. Bere proiektu politiko berriak ze botere maila lortuko duen predikarean dago, baina onik ateratzekotan bada garaia keinuetatik ekintzetara pasatzekoa Alli presidente jauna.

IKASTAROAK

Saloiko dantzak, dantza folklorikoak, eskulanak, masaia, joga, argazkigintza, marrazketa eta pintura, jostura, kosmetika naturala, keramika eta autodefentsa ikastaroak antolatu ditu Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartek. Apuntatu nahi duenak Elkarteko egoitzara joan (Aldapa, 5) edo 21 25 26 telefonora dei dezake.

Nazioarteko sukaldaritza, postre naturalak, ingelera, antzerki teknikak, autoestima, autodentsa eta abiltasun sozialak emakumeentzako ikastaroak antolatzen ditu datozen hilabetetarako Andrea zerbitzuak. Batzuk goizez eta beste batzuk arratsaldez, ordutegi zabalak daude. Apuntatzeko Andreara joan (Navarrería 15) edo 22 77 14 telefonora deitu.

Makillatzen ikasteko ikastaroa antolatu du datozen asteetarako Zizur Nagusiko Kultur Patronatoak. Apirilaren 25ean hasiko da eta 33 orduko ikastaroa izanen da. Astearte eta ostiral arratsaldetan emanen dute eta 16 laguntzako plazak daude. Matrikula 2.000 pezetakoa da. Izena emateko Kultur Etxera joan behar da.

ZINEMA

Zinema Espainiarrari buruzko zikloa hasiko da heldu den astelehenean Iruñeko Museoan. 'Operae primae' izenburupean, egun bakoitzeko pelikula bat eskainik dute, arratsaldeko 7.30etan, Museoan bertan. 'El espíritu de la colmena', 'Opera prima', 'Soldados de plomo', 'Tu solo' eta 'De tripas corazón' izenburuko filmeak botako dituzte astelehenetik ostiralera. Sarrera libre da.

'Huevos de oro' izeneko pelikula botako dute heldu den ostegunean, apirilak 20, Tafallako Español zineman. Kultur Patronatoak antolatuta, arratsaldeko 8.00etan eta gaueko 10.30etan izango dira zinema saioak. Sarrerak 200 pezetan salduko dituzte.

BESTELAKOAK

Baztango etxe eta abizeni buruzko mintzaldia eskainiko du bihar, apirilak 15, Alberto Aldai Garai adituak Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Euskara eta Kultur Zerbitzuek antolatutako ekitaldien barruan, arratsaldeko 7.30etan hasiko da.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Elizak ez dizu ukatuko

Joan den asteburuan ospatu ziren Nafarroako hiri nagusietan —herri txikietan oraindik ez omen da inor ausartu— lehen ezkontza zibilak. Lizarran eta Iruñean sona handiko ospakizunak egin ziren, eta alkateak dotore oso eta urduri samar azaldu ziren ezarritako orduan ohizko bihurtuko diren baina oraindik arraroak egiten zaizkien hitzak esatera.

Etsenpluetatik beti atera omen daitekè ikasbideren bat, eta bat aipatzearen ez ezkontzearena izango litzateke garrantzitsua. Iruñeko udaletxean behintzat, ez, sufrimendua baita alkate gaixoarendako. Hasieran ez zutela egin nahi, ez behintzat udazkena heldu arte, gero 20.000 pezetatik goitik kobratuko zutela, eta behin ezkontuta, esan zuen serio askoa ez zekiela ongi ezkontuta ote zeuden. Duda metafisikoak alkatearenak. Txotxolo aurpegia —ze bestela!— gelditu zitzaizen senar-emazte berri inozoei, duda betirako: 'Ongi ezkontuta egongo ote gara, bihotza?'

Alde ona bilatzekotan ere aurkitu egin daiteke, jakina. Adibidez, diru puska polita aurrez dezakezula argazkitan. Lizarrakoan nobioak berak esan zuen: 'Rocio Juradoren —folklore-dantzari



espainiar ospetsu eta bular-tsu bat— ezkontzan baino argazkilaria gehiago daude'. Hurrengo egunean egunkariak erosi, eta kitto: argazki bilduma eginga, dotore askoa, koloretan eta guzti.

Moda igaroko da, bistan

da, eta jendea itzuliko da ohizko ezkontzetara, arroza, garbantzua eta soineko txurrietara. Itzuliko da apaizaren altzora, eta elizaren abegira. Horiek behintzat ez dizute inoiz ukatuko. Ez hirugarrenaren ondotik, bederen.

ASTEKO PERTSONAIK



Juan Cruz Alli
Politikaria

Alliren Eguna' izan zen joan den asteartean, bertako komunikabide batek azaldu zuen moduan. Eta ez zen gutxiagorako izan, egun berean UPN alderdian baja eman, lehendakari karguan dimisioa aurkeztu eta CDN (Nafar Demokraten Elkargunea) alderdi barruan azaldu baitzuen bere burua Juan Cruz Alli jaunak. Ez zen, ordea, ustekabe handirik izan, aspalditik sumatzen baitzen antzeko zerbitu gertatuko zela. Orain, maiatzaren 28ko hauteskundeak prestatzeari ekin beharko dio, bere alderdi berriak ahal duen boto kopuru handiena atera dezan. Denbora ongi aprobetxatzen duen gizona denez, ez du arazo handiegirik izango lortu nahi dituen helburuak lortzeko, orain arte bezala.



'Kuko' Ziganda
Futbolaria

Ez da oso fin ibili denboraldi honetan Larraintzarko 'Kuko' Ziganda futbolaria, eta azken sei hilabeteetan ez du golik markatu. Joan den igandean, ordea, gol bikaina sartu zion Santanderreko Racing taldeari, hain zuzen ere azken gola —urriaren 19an— sartu zion talde berari. Kezkaturik agertu da askotan ultzamarra, aurrelari batentzat golak beharrezkoak baitira, baina entrenatzaileak konfidantza eman dio eta partidu gehienetan hor aritu da jo eta ke Athleticen. Hori bai, UEFAko kopan eta Errege kopan markatu zuen, oso gol inportanteak gainera, atzerriko taldeen kontra egindakoak. Eskasia amaitu dela frogatzeko, ordea, gol gehiago sartu beharko ditu geratzen den denboraldian, bere lana hori baita.

AHAZTU GABE!

TOPAKETAK



Euskal Rock Topaketa burutuko da heldu den asteko ostegunean, apirilak 20, Lekunberrin. Bertako Euskara Zerbitzuak eta Mitxausenea Kultur Etxeak antolatutako, bertan Gari 'Hertzainak' taldeko kide ohiak, Xabir 'Urtz' taldekoak eta Gorka 'Sorotan Bele' taldeko partaideak mintatuko dira gaiari buruz. Musika saioa hasi baino lehen solasaldiari emanen zaio tokia euskal rock mundua aztertzeko helburuarekin. Izan ere, arratsaldeko 7.00etan hasita, 'Euskal rocka, atzo, gaur eta bihar' gaiari buruz mintzatuko dira Mitxausenea Kultur Etxean. Ondoren, gaueko 9.00etan hasita, kontzertu berezia eskainiko dute hiru musikari hauek. Kanta berriak aurkeztuko dituzte, hiru partaideak banan bana ariko dira, gero hirurak batera eta jendeak ere izanen du parte hartzeko aukera. Horretaz gainera, aurretik, tartean eta bukaeran bideoklip emanaldiak izanen dira. Sarrera dohainik izanen da, guztientzat irekia. Emanaldiari buruz informazio gehiago nahi duenak 50 44 00 telefonora dei dezake.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gaintik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Donostiri

Erberuko mendietan harrobirik ez


HUR GOROSTIAGA / DONOSTIRI

Eltzarruze elkarteak Erberuko mendien baitan harrobi baten egiteko proiektuaren aurka borrokatzen dihardu azken sei urteotan. Hamar herritako ur hornidura arriskuan egon arren eta ingurugiroak hainbat kalte jasateko lanjeran egonik ere, harrobiaren xedea ez da oraino erabat bazterturik. Heldu den apirilaren 23an Eltzarruze eguna ospatuko dute.

Eltzarruze Erberuko mendi baten izena da eta ondoko beste bizpahirurekin mendi talde gotorra osatzen dute Nafarroa Behereko Donostiri, Donamartiri eta Armendaritzeko lurraldeetan. Bertan ur bildegi aberatsa kokatuta dago, Armendaritzetik Ahurtira bitarteko hamar herri urez hornitzen dituen.

1989ko udal hauteskundeetan abiatu zen Kanboko Durruti enpresaren eskutik bideratu nahi da harrobiaren proiektua. Eskualdea gisu-harritan aberatsa izanki eta Ipar Euskal Herriko kostaldetik hurbil egonik, enpresak berehalakoan agertu zuen interesa eta harrobiaren proiektua inguruko herrientzat aberasgarri eta lanpostu emaile gisa aurkeztu zuten. Geroztik eskualde horretako zenbait hektarea erosiak ditu enpresak. Izan ere, alboko bi herrietan, Isturitze eta Aiherran, Durrutik baditu bertze bi harrobi martxan.

Eltzarruze elkarteak Erberuko mendien zaintzea izan du helburu hastapenetik. Ikerketa hidrogeologikoa galdegin ondoan,



Alboko herrietan Durruti enpresak baditu bertze bi harrobi martxan.

harrobiak ur bildegia kutsatu edo zikintzeko arrisku handia zegoela azaldu zuen. Horrez gain, ibarreko laborariek ezingo lukete artalderik bertaratu eta inguruko etxalde anitzek kalteak izanen litzuzteke. Gisa berean, urtero 80.000 bisitari inguru izaten dituen Otsozelaiko haitzuloak ere kalteak jasanen litzuzte, Erberuko ibarrarekin bisean bis baitago, Eltzarruze elkarteak Jean-Michel Duhaldek azaldu digunez.

Elkarteak ur horniketaz arduratzen den Herriarteko Sindikatuen erabateko adostasuna jasota, Erberuko lurraldeko hiru herrietako herriko etxeei beren

ikusmoldea eman zezaten galdegin zien. Donamartiriko udal kontseiluak harrobiaren proiektua aho batez atzera bota badu ere, Donostiriko udal kontseiluan lau boz proiektuaren alde, bat zuri eta sei aurka agertu ziren. Armendaritzen, aldiz, Erberuko mendialdearen zati txikia bertzerik ez duenez, udal kontseiluak ez du oraino erabakirik hartu.

ELTZARRUZE EGUNA APIRILAREN 23AN

Eltzarruze elkarteak hainbat bilkura publiko eta bestelako ekimen egin ditu herritarrak ha-

rrobiaren lanjeraz ohar daitezten. Baina herriko bozak hurbil izanik, eta langabeziak gizartean duen garrantzia ikusirik, hauteskundeetan proiektuak alderdi politikoren baten programa beteko ote duen kezkatu daude. Horregatik, heldu den apirilaren 23an, igandez, Eltzarruze Eguna antolatu dute, Donamartiri eta Donostirir ospatuko dena.

Goizeko hamarretan Donamartirir hitzaldi eta gaiari buruzko azalpenak eman ondoren, Donostirira abiatuko dira bertan bertsolari, kantari eta gaiteroek alaitutako bazkari herrikoia egiteko.

Donamaria

Donamariako Bentak arteari ateak zabaldu dizkio

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Donamariako Bentak Artelan izeneko erakusketa aretoa inauguratuko du gaur, arratsaldeko seietan. Proiektua, hala ere, orain dela hiru urte jaio zen Elixabete Badiola eta Imanol Luzuriaga Donamariako Bentako ardura-dunen eskutik. Landa turismoari beste bultzada bat emateko asmoz, Donamariako Bentak dituen hiru solairuetako batean herriko eta inguruko artisau eta artisten lana erakustea erabaki zuten.

Elixabete Badiolak pozik gogoratzen du Artelan proiektuaren lehen urte hura: «Gure asmoa inguruko artisauen lana ezagutaraztea izan zen, bertako produktuak bultzatu eta, era berean, landa turismoa indarberritu». Artisauen lanarekin batera, Baztan aldeko hainbat margolarik ere izan zuten Donamariako Bentan euren koadroak erakusteko aukera. Badiolaren ustez,

hain zuzen ere, lana erakusteko espazio falta zen artisau eta margolarien funtsezko arazoa. «Jendeak, hortaz, lan hori ezagutzeko aukera gutxi zuen, baita erostekoa ere». Hutsune hori betetzeko asmoz, Artelan sortu zuen Donamariako Bentak.

Egurra, gazta, harria, margoak... guztiek zuten lekua Donamariako Bentan eta bertako bezeroek produktu horien guztien eraketa prozesua ezagutzeko aukera ere izan zuten. «Kaikuak erakustez gain, adibidez, kaiku horiek nola egiten diren azaltzen diegu bezeroei» azaldu du Elixabetek.

Aurten, Elixabete Badiola eta Imanol Luzuriagaren proiektua handitu egin da eta inoiz baino artista eta artisau gehiagok du

lekua bere etxean. Margolarien lanaz gain, harria, zura eta beste material batzuk lantzen duten artistek erakutsiko dute egindakoa. Horien artean, Ana Maria Parra margolaria, Garrigas eskultore iruindarra eta Iñaki Gallo Elgorriagako eskultorea izango dira, besteak beste. Garrigasek harria lantzen du eta Gallok haritza.

EMAITZA EZIN HOBEAK

Elixabete Badiolak azpimarratu duenez, urte hauetan Donamariako Bentako Artelan erakusketak izan dituen emaitzak «ezin hobek» izan dira eta bertara hurbildu diren bezeroek pozarren hartu dute etxekoan ideia. «Artisau eta artistengana hurbiltzeko aukera izan dute» nabarmendu du. Hala ere, ez da erraza

izan halako proiektua aurrera ateratzea, eta aurten, hortaz, bi laguntzaile izango dituzte Artelanen. Cristina Ubani eta Olivia Bantres izango dira erakusketa aretoko arduradunak.

Badiolaren ustez oso garrantzitsua da Artelan bezalako proiektu bat, eta honen arabera inguruko gainontzeko benta eta jatetxeek ere antzekoa egin behar lukete, «hori baita gurea indartzeko eta bultzateko bide garrantzitsua». Badiolaren hitzetan, «landa turismoak egun dena baino gehiago izan behar du eta hori lortzeko egin behar dugu lan».

Aurtengo Artelan aretoaren inaugurazio ekitaldia, erran bezala, gaur arratsaldeko seietan hasiko da eta Donamariako Bentak kazetari, artista eta Nafarroako Gobernuako ordezkari bertan egoteko gonbitea egin die. Inaugurazio ekitaldiaren ondoren, afaria egingo dute bertan, musika eta guzti.

Bera

Haurrentzako ekintzak Kaxerna aisialdi taldearen eskutik

JON ABRIL / BERA

OHoko lehen eta 5. maila bitarteko haurrentzat hainbat tailer antolatu ditu Kaxerna Aisialdi Taldeak, datorren astelehenean, hilak 17, hasita, eta ostirala arte. Astelehenean bertan txotxongilo tailerra prestatuko dute, txotxongiloak egin eta antzetzeko. Asteartean, musika tailerren ariko dira haurrak, eta beren musika tresnak egiteaz gain, txalaparta jotzerik ere izango dute. Asteazkenean, mendira irteera egingo dute, gaupasa, eta bertan bazkaldu. Ostegunerako, eskulan tailerra eta paperaren birziklatze tailerra prestatu dute eta, azkenik, ostiralean, sukaldean ibiliko dira ontzi tartean. Goizean 10etan elkartuko dira eta ordu bata arte ariko dira. Bazkalondan hiruretatik bostetara bilduko dira berriro ere.

Euskara hutsean egingo dira ekintzak, Kaxerna aisialdi taldean ohi den bezala. Haurrekin aritzen den elkarte hau iazko udan sortu zen Berako hiru gazteren ekimenez.

Uztailean izandako arrakastaren ondoren, lau eguneko txangoa antolatu zuten eta orain uda aurretik azken ekintza izango dena aurkeztu dute. Udara begira, Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateekin eta Malerrekako Euskara Mankomunitatearekin udalekuak antolatu ditu Gaztelun 6. eta 7. mailakoekin, iazko udaleku irekiekin batera.

Noain

Bolibarko Txikito izango da zesta torneoan

NOAIN

Bolibarko Txikito, zestako izar handia, igande honetan izango da Bidezar frontoian, bertako Noain Jai Alai taldeak antolatu duen III. Teimper Eskolarteko Torneoaren barruan. Zestapuntista hau lau aldiz izan da munduko txapeladuna, eta egun Milfordeko (Connecticut-EEBB) Jai Alai ari da jokatzeko, nahiz eta hau bere azken denboraldia izan daitekeen. Antolatuak gonbidatu dute aipatu frontoia zabaltzeko egiten ari diren gestioak bultzatzeko.

Torneoa bihar hasiko da, goizeko 11etan, eta Lekeitio, Tolosa, Gernika, Ispaster, Kabanillas, Noain, Andoain eta Zumaiako eskolek hartuko dute parte.

A. BARANDIARAN / DONOSTIA

Telepolis hemen dugu, gure ateari joka. Giza antolamendu berri honetan etxea izango da zentroa, ordenadoreek eta sare telematikoek —mundu osoko ordenadoreen arteko sareak, informazioa trukatzekoak— mundua ekarriko baitigute gure pantailara, gu haren bila joan beharrean. Hau da 'Cosmopolitas domésticos' entseian Javier Etxeberriak proposatzen duen gai erakargarri eta sujerentea. 'Telepolis' deitzen dio irakasleak gizarte berri honi, eta hainbat kode etiko jarri beharra azpimarratzen du. «Ez dauka irtenbiderik, hemen dago eta».

EGUNKARIA.— Zu aditua zara logikaren alorrean eta psikologiaren inguruan egin duzun lanarengatik, baita Leibniz-i buruzko ikerketengatik ere. Filosofia hutsa, alegia. Orain ospetsu egin zara ordenadoreak eta telebistak gure bizitzan izan dezaketen eraginari buruzko liburu batekin: gertu-gertuko arazo bategin. Zergatik aldaketa hori?

JAVIER ETXEBERRIA.— Badu zirikusirik Leibnizekin, eta 'Cosmopolitas Domésticos' liburuan kapitulu batean horretaz jarduten dut. Niretzat, telebista Leibnizen 'ezaugarri unibertsalaren' garapena da. Berak zioen posible izango zela hizkuntza naturalak era artifizialean azalduko lukeen beste hizkuntza bat asmatzea —digitalizazioa, ene ustez—, errealtatearekiko lotura galdu gabe —telebistak—. Zinema, musika, hori guztia 'ezaugarri unibertsalaren' garapena da eta sare telematikoekin Leibnizen proiektuak goia jo du. Hori izan zen, beraz, gai honi heltzeko arrazoi bat. Gainera, azken urte hauetan izan dut eztabaida pribatu bat Fernando Savater eta Aurelio Artetarekin, ETA eta komunikabideei buruzkoa. Niri biziki gaitziten zitzaizkidan biolentziak sortutako agonia eta heriotzaren esplotazioa, intimitatea bortxatzen ari zelako eta etikaren ikuspegitik oso gogorra zitzaidalako. Bestalde, Estatu Batuetan ezagutu nuen Internet eta horren inguruko azpiegitura, eta Grenada inbaditzeari ekin ziotenean han nengoen: telebistaz zuzenean eskaintzeko gerra zela ohartu nintzen han, ondoren Golkoko Gerrarekin gertatu zen bezala.

EGUNKARIA.— Kezka bat izan da, beraz, gai honi heltzeko abiapuntua.

ETXEBERRIA.— Hori da. Esan daiteke 'Telepolis' liburuan azaldu nuen teoriak lau edo bost urte zituela. Oso garrantzitsua izan zen 'telepolis' hitza bururatu izana. Hiriaren ideia garatzeko bide eman zidan fenomeno asko batzeko: telefonoa, teledirua, telebista, sare telematikoak... Hori batuta konturatu nintzen sortzen ari zela gizarte zibil bat, globala eta internazionala, ideiak finkatuta zituena.

Cosmopolitas domésticos' saiakerari esker Espainiako Anagrama sari garrantzitsua irabazi berri du Javier Etxeberria filosofo nafarrak. Bertan 'Telépolis' bere liburuan jorrotutako hainbat gai aztertu ditu irakasle nafarrak, bereziki garapenak gure eguneroko bizitzan sortuko dituen aldaketak. Javier Etxeberriaren arabera, sare telematikoek, telebistak eta ordenadoreak komunikazioak ezezik, lana, memoria eta harremanak aldatuko dituzte, berandu baino lehen. «Atean dago aldaketa».

«Telematikaren borroka hemen da»



Javier Etxeberria irakaslea da egun Euskal Herriko Unibertsitatean, Ibaetako kanpusean.

EDURNE KOCH

Interneten dagoen jendeak oso garbi dauka zer egiten ari den: gizarte zibila sortu, sare honen bidez edozer gauza erosi, museoak bisitatu, lagunekin hitz egin, ikasi egin dezakezulako. Hiriaren metafora da, azken finean. Gainera, nirea filosofia eta zientzia katedra da eta gai hauek oso lotuta daude arlo berri honekin, eta oso ongi egokitzen dira nire ibilbide teorikoarekin eta pertsona bezala ditudan kezkekin.

EGUNKARIA.— Internet sarearekin izan duzun harremanaren ondotik komunikabideei eta intimitateari buruz zenuen kezka hori ezabatu edo, bestela, areagotu egin al da?

ETXEBERRIA.— Ikusi dut sare horrek inondik ere kontuan hartzeko aukerak dituela. Internet sare zibila da, baina horrekin batera badaude sare militarrik, ekonomikoak, erlijiosoak... Lanbide klasikoak, beraz, bere

egiten ari dira komunikazio modu berri hauek eta egokitzen ari dira. Hori botereaz ari garelarik, baina boterearen kontrakoek ere ez diote muzin egin, eta Internet-en mota guztietako talde alternatiboek dute kabida. Hiri baten konplexutasuna dauka ia, eta horregatik deitzen diot hiria. Gainera, ezin zaio komunikazioaren elkartea edo deitu, hori baino askoz gehiago delako. Telepolisek, dudarik gabe, aldatu egingo du komunikazioa, baina baita produkzioa ere —tehelanaren bidez—, lurraldetasuna —ingurukoekin harremanak izan beharrean, izan ditzakegu munduko edozein tokitako jendearekin—, memoria —modu honetan egiten diren harremanak edo ekintza guztiak memorian gelditzen dira grabatuta— eta, batez ere, denboraren kontzeptua. Giza aldaketa sakon-sakona sortzen ari da.

EGUNKARIA.— Badira etsita

daudenak eta irrikitan daudenak. Zein aldetan zaude zu?

ETXEBERRIA.— Etsita gertatzen ari denarekin.

EGUNKARIA.— Baina argi eta garbi iraultzaren alde?

ETXEBERRIA.— Ez, inola ere ez. Aldaketak badu denetarik: alde txarrak eta onak. Bistan da giza antolamendu berri bat dela, eta ez daukala alternatibarik. Azken hiruzpalau mendeetan estatuak izan dira giza antolamendurik ohizkoena. Orain datorrena horrez gaindi egongo da, botere politikorik ez dagoelako, eta federalista huts-hutsa delako. Azken finean sareak sare bat da, eta milioi bat pertsona ados jartzen badira elkarren arteko harremanak izateko, inork ezin die trabarik jarri. Hau da alde ona. Telepolis-en alde txarra telebista da, indar handia duelako eta oso hierarkizatuta dagoelako: guk bidaltzen digutena bakarrik jasotzen dugu. Internet-en, ordea, jaso eta bidal

dezakegu, berdintasunean. Hor dago intimitatearen inbasioa, kasu. Bizitza publikoaren irudiak etengabe azaltzen zaizkigu telebistan, eta irudi publikoak etxea inbaditu duela esan daiteke. Beraz, etxeak dira gizarte berri honen oinarria. Telepolitaren oihurak ezagutzeak izango du, horregatik, funtsezko garrantzia —jakitea zer ordutan jarri behar diren kirol saioak, zein ordutan haurrentzako saioak—. Eta gure etxeetan egiten duguna, orain, asko interesatzen zaio boterean dagoenari: arlo pribatuaren inbasioa da, ezinbestez gertatzen ari dena. Hori da alde kritikagarriena. Badira ere alde onak, adibidez mestizaia. Hirietako bizitza beti izan da kultura bakarrekoa, kultura batetik —gehienez bitik— edan duelako gizakiak, eta horren arabera hazi. Kultura gehiago nahastuta *ghetto*-ak sortu dira berehala. Baina telebistan, orain, kultura askoren

errepresentazioak ditugu, eta ugaritasun handia dago. Hori da etxeetako kosmopolisten ezaguri bat.

EGUNKARIA.— Iraultza bat, dudarik gabe, eta akaso handiena. Horrek beti beldurra eta mesfidantzak sortzen ditu. Iruditzen zaizu balantza orekatua dagoela, hau da, aldekoak kontrakoak adina direla?

ETXEBERRIA.— Jakina, badira apokaliptikoak eta sinetsita daudenak, baina nire bi lanak deskriptiboak dira, eta, nahi bada, bietan iragarri egiten dut zer gertatzen ari den: hau horrela dago, eta itxura guztien arabera, horrela jarraituko du. Eta, nire ustez, aldaketa sakona da, eta gaur egungo borroka politiko, ekonomiko eta kultural handiak komunikazio mota berri hauen inguruan sortzen ari dira, telepolis inguruan. Hemen, modu berri hauetan dago jokoan gizakiaren, gizartearen eta kulturaren etorkizuna. Ohizko bideak ez dira desagertuko, baina beren eragina txikiagoa izango da. Eta nolakoa bide berrietara ohitzeko gaitasuna, halakoxea izango da baztertuta gelditzeko arriskua.


EGUNKARIA.— Federalismoa aipatu duzu, baina bada izugarriko interesa hori kontrolatzeko, eta borroka hasiak dira. Ez al da errazagoa izango dena kontrolatzea, boterea ez al da boteretsuagoa izango?

ETXEBERRIA.— Jakina da borroka handiak daudela hau kontrolatzeko, baina estatuen gaineko borroka da, eta nahiz eta zenbait murrizketa paratu, beti izango dira partzialak. Sare telematikoetan zuri bide bat eragozten badizute, beti izango duzu beste bide bat toki berera heltzeko. Mugak gaindituta daude telematikaren bidez.

Ez da, hala ere, irakasleak azaltzen duen bezain bakuna, eta Estatu Batuetan saiatzen ari dira dagoeneko sarearen bidez helitzen den pornografiari trabak jaritzen. 1992an eskandalu izugarria izan zen Kanadan, bi politikarien arteko elkarrizketa bat eskaner baten bidez grabatu zutenean. Grabazioa eskuratu zuen iratiak ezin izan zuen emititu, 'estatu arrazoiengatik', baina emisioa Interneten bidez ezagutu zuten kanadiar askok. Estatu Batuetako 'Wired' aldizkari famatuak horri buruzko artikulua karrikatatu zuen, eta Kanadako agintariek bahitu egin zuten argitalpena, baina honek Interneten bidez bidali zuen. «Izango dira kontrolatzeko ahalegin franko» onartu du Etxeberria, «eta ikusiko dugu zer gertatzen den». Sariaren aurkezpenean «diktaduraren arrisku handia» zegoela ohartarazi zuen, «baina baita era demokratikoan jarduteko nahia ere. Bi indarrak hor daude, eta borroka hastear dago».

EGUNKARIA.— Eta zein eginkizun izango du etikak mundu berri honetan?


ETXEBERRIA.— Funtsezkoena



«Telematikari buruzko ikerketak badu zerikusirik Leibnizekin». E. KOCH

Telepolicen komunikazioa aldatu egingo du, baina baita produkzioa, lurraldetasuna, memoria eta denboraren kontzeptua ere. Aldaketa sakon-sakona da».

Komunikatzeko modu berri hauetan dago jokoan gizakiaren, gizartearen eta kulturaren etorkizuna. Ohizko bideak ez dira desagertuko, baina beren eragina txikiagoa izango da».



«Funtsezkoa izango da intimitatea babestea».

EDURNE KOCH

intimitatea babestea da. Nik ikusten dudaren arabera, luze gabe Interneten bidez ez dira negozioak edo informazioa bakarrik bidaliko; harreman pribatuak ere —konferentziak, opariak, mezu pribatuak— bideratu ahal izango dira. Baina orduan ziurtatu beharko litzateke intimitatea, hau da, norbaitek nahi badu bere mezua pribatua izatea, izan dadila pribatua. Bestalde, norbere sekretuak gordetzeko aukera eskaini behar dute sare telematikoak. Halaber, haurrentzat erregulazioa behar da egin, zenbait tokitara beren sarrera galarazteko. Gure gizartearen dagoen etika beraren oinarriak zaindu egin beharko lirateke sare berri honetan ere.

EGUNKARIA.— Antzematen zaizu ilusio pittin bat ere. Ez duzu uste sare hauek dakartzaten aldaketa guztiekin zenbait tentsazio edo harreman mota galdu egingo direla?

ETXEBERRIA.— Ez, inola ere ez. Niretzat, sare telematikoa telefonoa bezalakoa da. Ez dut uste telefonoarengatik harreman klasikoak —adibidez mintzatzeko gaitasuna— galdu edo urriagotu egin direnik. Harremanak izateko beste bide bat da, ez besterik. Telefonoa, argi eta garbi, askatasunaren mugen zabalguen bat izan zen. Sare telematikoak, gauza bera dira. Hori bai, norbere borondatea ez dute bortxatu behar, eta harreman klasikoekin jarraitu nahi duenak jarrai dezake. Zabaltzen dira, beraz, harremanetarako aukerak. Baina ez dut uste telepolisek ezer konponduko duenik. Gizartearen arazoak bestela planteatu dituzte, besterik ez, eta gizakiaren nahien arabera hartuko du honunzko edo harunzko bidea. Inperio bat izan daiteke, George Orwellen '1984' bezalakoa, historia osoan inoiz ez delako armada bat sartu munduko etxe guztietan. Inperio hori boteretsuena izan liteke, baina demokrazia zuzena ere izan liteke. Biak dira posible, baina nik ez diot gaur egun inolako arriskurik antzematen. Hala ere, ezin dut aurrikusi borroka nola egingo duen aurrera baina iragarri egin dezaket: «borroka hemen da».

Urteak ditu eginak Javier Etxeberriak Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), eta frankotan ardura postuetan. Ez du, hala ere, inola ere galdu lurralde foralarekiko harremana, eta unibertsitate publikoak harturiko bidez kexu da. «Nafarroako Unibertsitate Publikoak gehiegi jo du teknologiarantz nire ustez modu sinplegian. Filosofia ere teknologiararen parte bat da, beronen ondorioez jarduten duelako, baina uste dut ikuspegi motza izan dela horretarako. Aurelio Arretak ere azpimarratu zuen behar zela iritzi kritiko bat, filosofian ematen den horietakoa, baina ez zitzaion kasurik egin. Pena bat da, lanerako indar bat galdu delako».

Amikuzeri goraintzi

● Bortuz bertzaldetik goraintzi ziei, amikuztarrei. Tenore batez elkarren hurbilago ginen orai baino, hobeki ezontzen ginduen elkar, oro Nafarroan egonik eta.

Behiala Garruzeko merkatuak zer oihartzun eta munta ez zituen bazter orotan; oino ere feriak montioka ekarrarazten du jendea, ihazkoan, prezisiki, ikusi ahal izan ginduen bezala (derradan bidena-bar, saiaturik ere, «... ene maite pollita han ez nuen kausitu...»).

Duela gutxi ikusi bezala, ari zirate ahaleginak egiten elkarren berri hobeki izateko. Egunkari honen konprenitzeko ikastaldiei buruz ari gara. Gauden bezala egonik irudimena behar beita dauzkagun eskasiak gaintzeko eta nago arras ongi, biziki untsa duziela asmatu.

Halere kasu emazie! Hurbil zitezte Egunkariaren mintzairari baina ez sobera, aski izanen duzie konprenitzeko eraren lantzea, deus gutxi gehiago. Hemen barna ardura dugu aditzen (eta idatzia ikusten) zien (gure) solasaren aberastasunaz, Egunkari hontan berean ere (Orri debozionezkoan), alta inori ez zaio aberastasun hoienezagutzeko biderik bururatzen, ziek asmatu bezala. Bide batez bi muturretan daudenek aisago egingen dute topo, balin eta biak ibiltzen hasten badira biderdiari buruz, xakina.

Urteak joan urteak jin eta mugaz bertzaldeko liburuak kasik gehienetan etelalde bat daramate hondar orrialdetan gure argigarri. Amikuztar batetik, hain zuzen, berriki idazten zuena 'Hain arrotzak girea elkar' galdeginez.

Ez, Itxaro, ez... baina sogorretan sogorrena aditu nahi ez duena denez gero...

Beraz ba, biba ziek eta beti aintzina bide berriak idekitzen, ea sortzen den Amikuzeko berriemaitzen bat Egunkariarendako, berriez landa mintzamolde desberdinarekin, gure aberasgarri.

Amikuzte herri luze, obretan ere izan dadin luze.

Maite dut ala ez?

Galdera: Ez dakit zer egin. Duela aste batzuk baserritar bat ezagutu nuen, bere segarekin luzerna moztzen ari zela, eta meteoroki metatu ginen meten artean. Ez dakit maite dudantez. Ez dakit hots egin behar diodan, haren behiak

saldu eta nirekin etor dadin Miarritza bizitzera. Ez dakit joatera utzi behar diodan, eta betiko desar dadin, oroiteza-aren putzu lizunean, eta haren gorputz bulartsua Pazko eguneko oroimen bat baino izan bedi. Beldur naiz nire bizimodua goitik behetira ez ote den irauliko, eta noiz behinka Parisa egiten ditudan txangoak opera aditzera, edota Italiara Stendhal sindromeak jota, betiko desar daitezen. Gustatuko litzaidake botika-dendara joan eta Amodio-prediktor bat erostea, eta gure malkoak hortxe ixurtzean, amodiorik ezaz edo pasioaz koloratzea. Ba al dago modurik jakiteko maite dudan ala ez?

Erantzuna: Lehenago esaten zen pertsona bat maite izanez gero, harekin oheratzeko gogorik sortzen zela zure baitan. Erabat egiazaturik dago pertsona batekin ohera joan ahal izateko ez dela beharrezkoa gauza handirik. Milan Kunderraren pertsonaia batek esaten duenez, larrutan ibilitakoan, ohekidearekin lo egiteko gogorik baduzu, baliteke maiteminduta egotea. hori karinoa da, eta dakizunez karinoa karioa da.


Galdera: Zahartzen hasia naiz. Errekomendatuko zenidake produkturen bat nere larrurako?

Erantzuna: Dakizunez, bada sektore bat, sektore industrial garrantzitsu bat, zahartzearen ondorioen kontrako bururakara erabat emana dagoena. Orain arte, gatazka hauek metafisikoak izaten dira, baina orain teknologiaren esku geratu da afera. Lehenagoko tempus fugit, ubi sunt, carpe diem, tempora mores eta, gai metafisiko horiek Shakespeareren sonetoetatik atera eta Chanel, Neutrogena, Ducray, Normaveen, Aveeno krema poteetan sartuak dira. Botika-denda edozeinetan eman diezazukete zer igurtzi azalean. Edo besterik gabe lurrindegi batean.

Sektore horretan arituko banintz, ziurrenik nere iritzia bes-telakoa litzateke. Beraz, ez ha-



Erabat egiazaturik
dago pertsona
batekin ohera joan
ahal izateko ez
dela beharrezkoa
gauza handirik.



'Caines Navarros' liburuko ilustrazio bat.

Herioa zartakoka
ari zaigu
egunero, ez oso
fuerteak, baina
egunero gure
epelak hartzen
ditugu.

rritu esatera noanarekin. Nik esango nizuke Shakespeareren Hamlet irakurtzeko. Ofelia da hiltzen den lehendabiziko pertsonaia. Putzu batean aurkitu zuten neska, nenufarik (igelbelar zuria, euskara argian) tristen eta ederren bihurtuz. Ikusi al duzu inoiz nenufaren bat? Kuadroetan bai bederen. Kuadro nenufarik benetakoak baino ederragoak izaten dira. Bada, Shakespeareren lanean ikus daitekeenez, ederra da hiltzen lehendabizikoa. Herioak ez du bukaerako uzten bere zarta bortitza. Inola ere ez. Egunero zartakoa ari zaigu, ez oso fuerteak, baina egunero gure epelak hartzen ditugu.

Nenufar hitza ninfa hitzatik omen dator. Uretan-bizi diren emakumezko magikoak eta lore horiek lehengusu propioak.

Zure edertasuna gorde nahi

baduzu, badakizu zer egin behar duzun. Putzu batera joan eta Ofeliarena egin, nenufarena, ninfarena, uretan biziko modu bakarra, uretan lo egiteko modu bakarra, heriotza baita. Eta kuadro bat egin dezatela zure gorparekin; berdin dio, kuadro inpresionista ala expresionista.

Erroma garaiko galdatzako harriak eta gero, Iruñeko museoan zure ederra miretsiko genuke. Ez, ironiarik gabe, ez dago besterik.

Klasiko bitxi
arrantz klasiko

Joxemiel Bidador

Laborarien liburuaz (III)

Juan Domingo Goitia Garmendiak 112 orrialdetako galera-erantzun eiteko esku liburua



Nekazaritza buruz izkiriatu eskal idazkien berri emateko den hirugarren eta azken aipua bada egungo honako hau. Horrela izanik, gaitezen has ekei guziz arrot interesgarri batekin. Goierriko Alzagan sortu zen Juan Domingo Goitia Garmendiak nekazaritzarako 112 orrialdetako galdera-erantzun eiteko esku liburu bat argitara eman zuen Tolosan Eusebio Lopezen moldiztegiari 1886. urtean izenburu honen azpian: *Agricultura eusquerazcoa edo Eusquerazco agricultura necazari euscaldunentzat gutziz egoqui datocen ejercicioac eracusten dituana eta Carlos Irugarrenaren Españar-malla erreguezco agirian zaldun dan Alzaga-co necazari Juan Domingo Goitia Garmendia escribituba.*

Aurkibide zabala giputzak eskeinia, liburu osoa sei atal nagusietan banatuta utzirik. Lehenengo partean honelaxe aritzen da: *'munduan lenengo guizona ceñ izandu zan (...) diluvio edo udalde universal edo mundu guzticoa noiz izandu zan eta hurrac nola elcortu ciran (...) euscaldun errietaco necazarien artu-biderik andiena certatic datorren'*. Segituan bigarren, hirugarren eta laugarren *claseco necazarien gañean* dihardu. Hirugarren zatian *ganadu janariac ereiteco gañean eracusmenak* badakar-tza. Laugarren *ganaduac gobernatzearen gañean eracusmenak* ditugu, bosgarrena *necazari euscaldunac lagoreac ereiteco gañean eracusmenac*, eta seigarren *ganadu aciac ereiteco gañean eracusmenac* argiriko azaltzen dizkigu.

Guzi honez gainera, bukaera eder bat dugu laborari letratuak eskeintzen diguna, izan ere hiru zortziko kaxkara xamarren bitartez akitzen baitu bere liburu. Hona hemen azkeneko biak: *'Anciña asi nuan/ obra onen plana/ arguitu desoan/ necazariangan/ lagur estudioz/ ta naguia pluma/ arguitzeo bildurra/ inorenzana/ Pobrea/ izan arren/ obra onetaco lanac/ estimatuco ditul/ necazaria danac/ divertitzeo diral/ euscaldun lagunac/ atera bitartean/ gueyago daquianac.*

Zegoenez aipatu Narbarte-koak egin zuena horrelako jorragai uken idazki soila ez da naski, izan ere Althabe izeneko xiberutar batek 1900. urtean argitara eman baitzuen Baionan *Ciberoko botanika edo lantharen jakitatia* izenburuko lan erakargarria. Zoritxarrez honen

hatzik ez da bide, eta honez gero galdutzat eman beharrekoa jazo dakiguke. Alabainan, Hanburgoko Karl Bouda eta D. Baumgartl ikerlariak landareen eskal izenei buruzko lantto bat eginga laga ziguten nonbait garrantzigarri ere suerta dena. Hauxe Mitxelena haundiak alemanieratik gaztelateratu zuen eta Salamancan agertarazi 1955. urtean, *Nombres vasocos de las plantas* izenburupean eta bertako unibertsitatearen bultzadaz. Ikerketak bederatzita puntutako aurkibide laburra eskeintzen digu, non nabaria egiten diren benetako helburu filologikoak —euskera eta kaukasoko hizkuntzen harremanak frogagarri batik bat— eta ez izadi propioarenak: *árboles; plantas y animales; hombre y paisaje; comparaciones y propiedades; hierbas y flores de origen románico; préstamos y calcos; plantas cultivadas; onomatopeyas; coincidencias vasco caucásicas*. Onomatopeiei buruzko atalak zenbait izen interesgarri badakarzkigu: *txilin*, hauxe *enredadera edo campanilla* dugu; *xixtu* *avena silvestre*; *irri*, *apio de risa*; *izan* ere *jan ezekero farre sardonikoa* sortarazten baitu; *punpun*, *mitxoleta* edo *erderazko amapolá*; *dolda*, *siempreviva*; *pufa valeriana*; *zuzun*, *burzuntza*, *burtxintx*, *busontza*, *busuntza*, *buzuntza* edo *bufunta*, *álamo temblón*.

Azkenik, Adrien Gachiteguy eta L. Aguerrea jaun kalonjeek *Laborantza: laborantzarik hobeki bizitzeko izenburuko idazkia* argitara eman zuten 1963. urtean, Editions Ezkila izeneko argitaletxean, Ahurtiko Belokeko abadian bertan, aintzin solasak Dassancek eta Jean Louis Davantek egin zituztelarik. Lurra, Landareak, kabaleak, laborarien arteko antolamenduak eta konduak dira liburukiak erakusgai dituenak. Azkeneko hauen gañean horrela mintzo zaizkigu: *'Egungo egunean, laborariak, nahi t'ez, diru anitz erabiltzen du eskuetan. Baditu gastu haundiak. (...) Orotarat heltzeko izan dezake hain segur asko buruberotze eta beaztopa bedi. (...) Urthe-ko konduak egiteko, behar da jakin etheko kabalek zonbat balio duten urthe hastean eta zonbat duten balio urthe ondarrean'*. Zeharo aisa beraz matematika hau, eta oraino errezago errazteko, 'etsenplutzat eginen ditugu isura urtharrileko konduak'.

■ Iruñeko Hiria Xake Torneo itxiko 4. ihardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 30an jokatu.

Zenon Francom 2.495 ELOkoa (Espainia)-Lluis Comas, 2.500 ELOkoa (Katalunia).

1.c4,Zf6; 2.Zc3,g6; 3.g3,Ag7; 4.Ag2,0-0; 5.e4,d6; 6.gZ-e2,c5; 7.0-0,Zc6; 8.d3,Ad7; 9.h3. Txurien asmoa alde horretan eraso egitea da. Hori da beren joko. 9...Ze8; 10.Ae3,Zd4; 11.Gb1,Zc7; 12.f4,Gb8; 13.g4,Ze2 xa; 14.Ze2,b5; 15.b3,c4; 16.d-c4,Ac6. Beltzen estrategia 'e4-ean' ahul dagoen peoia zirikatzeta da. Nor nagusituko ote?, 17.f5,Gb6; 18.Dd2,Da8; 19.Zg3,Ze8; 20.Ah6,A4 xa; 21.Eh1,Zg7; 22.bG-e1,a5; 23.g5,Ae5. Okerra. Adibidez, 'f6' hobe zen.

24.f6,Ze6. Zaldia jan izan balute, 'g7' benetako ziria izanen zen.25.Af8, Df8; 26.Zf5. 'Ze2' jokaldi lasaia izanik, txuriek partida nahastea erabaki dute. Ikus Koadroa. Ez dago ongi pentsatuta, eta garaipena urrundu du. 26...f5; 27.f5,Zd4; 28.Ac6,Gc6; 29.e7,De7; 30.g6,f-g6; 31.Dg2,g5; 32.f6,Df7; 33.Dg5 xa,Eh8; 34.Dg4,Ze6; 35.Ge4,Gc8; 36.Df5,Gg8; 37.Gg4,Gg6; 38.Gg6,g6; 39.De4. Gaizki, 'f6-ko' peoia galduko duelako. 39...Af6; 40.Dd5,De7; 41.Da8 xa,Eg7; 42.Da5. Nekegatik edo, txuriek irabazteko moduan egondako partida beltzei eman diete. Okerreko jokaldi honek ez du konponbiderik. 42...Db7 xa; 43.Eg1,Ad4 xa; 44.Eh2,Ae5 xa; 45. Eg1,Zg5. Matea itzuriezina da. Txuriek bi aldiz sartu zuten hanka.





Ana Diez, 'Ander eta Yul' pelikularen filmaketan.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Ana Diezen bigarren pelikularen errodatzerako taldeak dagoeneko emanak ditu estreinako urratsak Medellinen (Kolonbia), kanpoaldeko paisaien eta filmeko toki aproposen bila. Hiru aste aritu dira lanean zuzendari nafarraren errodatzekideak Hego Amerikako hiri bitxi horretan. Hain zuzen ere, joan den astean heldu ziren zuzendaria eta bere laguntzaileak handik, eta errodatzea bi hilabeteren buruan hasiko dela diote arduradunek. Angel Amigo pelikularen gidoilari eta ekoizle donostiarrak azaldu duenez, Kolonbian horretan apenatzen den zinemā tradizioz «eta, ezinbestez, prestakizunak mantsotso doaz beti. Zinemarako munduko hiririk aproposenetakoa da, etengabe azaltzen delako pelikuletan, telebistan eta, baina inork ez du han errodatzen».

Ander eta Yul' pelikula estreinatu eta bost urte igaro ondoren, bigarren luzemetraia errodatzeari ekin dio Ana Diez zinema zuzendari tuterarrak. Oraingo honetan Medellinera (Kolonbia) joan da Angel Amigo ekoizle donostiarraren taldearekin, eta bi aste barru hasiko du filmaketa. Pelikulak gaizkile gazteen mundua izango du gaia, bereziki negozio-emakume bilbotar batek mundu horrekin harremana izatean sumatzen duen barne-aldaketa sakona.

Kolonbian errodatzen

Eta zergatik Medellinen? Argumentua ere han girotuta dagoelako. Pelikula *thriller* bat izango da, munta gutxiko gaizkileen munduaren erretratua, Amigoren hitzetan. «Azken finean, bi kulturak elkar jotzen dutenean sortzen diren istiluen inguruko istorio bat izango da pelikula. Bertan badira diru gutxiren truke hiltzeko kapazak diren gaizkile

gazteak, ia haurrak, eta hara, mundu hartara heltzen da Europako hiri handi bateko emakume bat —Bilboko negozio-emakume bat—. Pelikula eratu dago emakume honek kultura arrotzarekin izandako harremanaren ondorioz bizi dituen aldaketen inguruan. Aktoreen artean Aitana Sanchez-Gijón eta Clara Badiola daude eta gainontzekoak

kolonbiarrak dira.

Amigoren arabera, pelikula bertan egin behar hainbat berezitasun ezartzen dizkio errodatzeari, bereziki egin beharreko tramite legalei dagokienez. «Lehen-lehenik ahaztu behar da Europako lan egiteko modua» dio Amigok, «horrela dena errazago egiten baita. Han gauzek bere denbora behar dute, eta gure kal-

kuluen arabera, sei-zortzi bat aste emango ditugu errodatzen». Aukeratutako tokiak ez dirudi, lehen kirikadan, aproposena, Medellin munduko hiririk arriskutsuena baita delituen kopuruari begira. Gaur egun, auzoen bigilantzia gerrilari ohiek osatutako taldeek egiten dute, eta edozer gauza egiteko haiekin jarri behar da harremanetan. Hala ere, arrisku usaina ezabatu nahi du ekoizle donostiarrak. «2,5 milioi biztanleko hiria da Medellin, eta badira sartuz gero ateratzeko txarrak diren auzoak, baina baita auzo lasaiak ere. Bertan baime-nak-eta lortzea ez da ezinezkoa, baina beste modu batez egin behar dira gauzak. Mendira joatea bezalakoa da: ondo prestatuta joanez gero, hirian baino hobeto ibil zaitezke».

Ez da, halabaina, esperientzia berria izango Amigoren taldearendako, esperientzia badutelako Hego Amerikako pelikulen munduan, eta oso freskoa gainera. Berak gogorarazi duenez, duela zenbait aste estreinatu dute Kolonbian bertan 'El agente de la Universal' izeneko pelikula, Ramon Agirre eta Aizpea Goenaga protagonista dituela. Izugarrizko arrakasta lortu du bertan, eta lehen hiru asteetan 200.000 lagunek ikusi dutela dio Amigok.

Ana Diezek ere izan du harremana hango zinema munduarekin, lan franko baititu eginak Mexikon eta inguruko herrialdeetan.

Heldu den astean bertara joango da berriro ere talde osoa, errodatzearen azken koskak berdintzeko, eta, esan bezala, bi hilabetetan burutuko dutelakoan daude Donostian. Banaketarako 'Maité' pelikularen banatzaileekin egin dute jada harremana, eta heldu den urtearen hasieran pantailaratuko da. «Ahalegin berezia da gure aldetik» azaldu du Amigok, «baina Hego Amerikan dagoeneko kontaktuak izateak eta 'El agente de la Universal' pelikularen arrakastak erraztu digu bidea. Diruarena lotuta dago, eta hori bakarrik bada arrakasta».



Bi aste barru hasiko da zuzendari tuterarra bere bigarren luzemetraia errodatzen.

'Ander eta Yul'

A.B. / IRUNEA

■ Pelikulen egitura, kontzeptioa eta filosofia arras ezberdinak izanik ere, ezin uka 'Ander eta Yul' luzemetraiaren eta gutxi barru Ana Diez errodatzen hasiko denaren artean parekotasunak badirela. Biak oso istorio gogorren inguruan osaturik, biek nahastuko dituzte mundu marjinalak eta urbanoak, biek bisita egiten dute miseriaren hondora. Gogorak biak, barren-barrenetik aterata.

Ez zuen zorte handirik izan 'Ander eta Yul' filmeak duela bost urte Donostiako Zinemaldian estreinatu zenean, gaia ere

ez baitzen, izan ere, arrakasta erraz edukitzekoa. Etakide baten eta drogazale baten arteko harremana zuten abiapuntua, eta horrek arriskuaren maila oso altua paratzen zuen, ezinbestez. Pelikulak kritika gogorak jaso zituen gaiaren tratamenduarengatik, eta aktoreen artean ere tentsioak sortu zituen orduan. Donostian eta Gipuzkoako hainbat herritan errodatuta, bertan parte hartu zuen, besteak beste, Miguel Munarriz aktore nafarrak, gaur egun Nafarroako Antzerki Eskolako partaideak. Hori izan zen zuzendari nafarraren lehen luzemetraia, dokumental eta erdimetraia zenbaiten ondotik.

«Saio ona egitea espero dut»

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Mikel Saralegi Leitzako harri-jasotzaileak 322ko harria jaso zuen joan den igandean Anoetan (Gipuzkoa), martxoaren 26an 321ekoa altxatu ondoren. Baina Saralegik ez du amore eman eta hil honen 22 edo 23an —eguna ez du oraindik zehaztu— kilo bat gehiago jasotzen ahaleginduko da. Leitzan bertan, jaioterrian egingo du saioa kirolari aparta honek. Harriaren bidean hamabi urterekin hasi zen leitzarra eta egun, 27 urterekin, goia jo du harri-jasotzaileen artean. Iñaki Perurenaren errekorra atzean utzi eta, kiloz kilo, aurrera doa Mikel Saralegi.

EGUNKARIA.— 322 kiloko harria jaso berri duzu, aurretik 321ekoa jaso ondoren. Hala ere, 320koa jaso zenuenean zuzenean 322koa altxatzen ahalegindu eta porrot egin zenuen. Kiloz kilo ariko zara hemendik aurrera?

MIKEL SARALEGI.— 312 kilotik 320ra zuzenean salto egin nuen. Aldaketa handia izan zen eta gero horren ondoren, 322 kiloko harria zuzenean altxatzen saiatu nintzen. Hala ere, hirutan porrot egin nuen eta hori dela-eta, aurretik 321ekoa jasotzea erabaki nuen. Hemendik aurrera, ziu-rrenik, banaka joango naiz, kilo anitz dira-eta. Nire egoera fisikoaren arabera jokatu dut, beti ere; beraz, baliteke beste saltoren bat ematea ere, ez dakit.

EGUNKARIA.— 320 kiloko muga gainditu eta epe berri bati hasiera eman diozula erran daiteke?

SARALEGI.— Bai, hala da. Zaila izan da eta lan handia egin behar izan dut baina azkenik, hainbatetan huts egin ondoren, epe hori atzean utzi eta berri bati ekin diot. Orain poliki-poliki aurrera egiten saiatuko naiz.

EGUNKARIA.— 323 kiloko harria jasotzea izango da zure hurrengo urratsa. Saioa, gainera, Leitzan izango da. Esanahia berezia al du horrek zuzerzat?

SARALEGI.— Bai, noski, herri-tarren aurrean aritzea berezia da eta, nolabait, presioa handiagoa da. Kilo asko dira, gainera, eta zaila izango da baina, hala ere, orain arte bezala jarraitu eta saio ona egitea espero dut.

EGUNKARIA.— Zer prestakuntza mota egiten duzu gero harria jaso ahal izateko?

SARALEGI.— Denetarik pixka bat egiten dut. Gimnasioan pesak egiten ditut baina mendian ere ibiltzen naiz. Horretaz

ditu al da apustua zuen artean?

SARALEGI.— Errekorren munduan bi ibiltzen gara, baina besteek apustuak egin behar izaten dituzte, zer bestela? Dirua behar da gainera kirol honetan aritzeko eta ezer egiten ez badute, azkenean, utzi behar izaten dute.

EGUNKARIA.— Harri-jasotzaileen mundua ere izarren mundua dela erran daiteke?

SARALEGI.— Bai, beste hainbat kiroletan bezala gertatzen da, harri-jasotzaile pare bat

tzen diot. Honela, nahiz eta hasieran jasotzea gehiago kostatu, behin potea emanda errazago altxatzen dut.

EGUNKARIA.— Beruna erabiltzen duzue pisua nahi duzuen erara moldatzeko.

SARALEGI.— Bai, hala da, bestela harria zabalegia izango litzateke. Hala ere, aspaldiko kontua da beruna jartzea. Kontua da lehen ezkutuan egiten zen gauza zela eta behin, federazioko lehendakari bat ere bota egin zuten horregatik. Gaur egun, aktan jarri eta kitto.

EGUNKARIA.— Aurki 323 kiloko harria altxatzen saiatuko zara baina noraino ailegatu nahi du Mikel Saralegik?

SARALEGI.— Ez dakit, zaila da hori erratea. Niri ere gustatuko



Mikel Saralegi, lehengo igandean, Anoetan.

gain, noski, harriarekin entrenatzen naiz. Leitzako saioa dela eta, hain zuzen ere, ostiralean —gaur— 323ko harria jasotzen ahaleginduko naiz eta altxatzen ez badut, agian ez dut saioa egingo. Hala ere, askotan etxean altxatu eta gero, ezin izan dut saioan harria jaso eta hori ere gerta daiteke. Hainbeste kilo gainera, egun ona izanda besterik ezin dira jaso.

EGUNKARIA.— Errekorrak egiten saiatzen zarete orain harri-jasotzaileak. Atzean gel-

ibiltzen da harri handitan eta beste pare bat txikit. Bitartean, gainontzeko guztiak ez ditu inork ezagutzen eta gu bezala, gogor entrenatu eta ilusio handia dute.

EGUNKARIA.— Antzina harria berdina zen harri-jasotzaile guztientzat baina egun bakoitzak bere erara moldatzen du. Nolako da zuk gogoko duzun harria?

SARALEGI.— Nire ezaugarrietara moldatzen dut nik harria. Behealdean karga gehiago jar-


litzaidake hori jakitea. Egundatik bestera eta kilo batetik bestera, ordea, gora-behera handiak izaten dira. Inork uste baino urrunago ailega naiteke edo inork uste baino azkarrago utzi, nork daki. Kilo anitz dira eta nahiz eta banaka altxatu, zaila da. Ur ttanta bakar batek ontzia betetzen duela ez da ahaztu behar.

EGUNKARIA.— Iñaki Perurena leitzararen marka atzean utzi duzu. Zer eragin izan du Perurenak zuregan?

SARALEGI.— Berak bere lana egin du eta ni ere nirea egiten saiatu naiz. Gauza berean aritu arren, bakoitza bere aldetik ibili da, hala ere, elkarrekin ongi konpontzen gara. Lehena izateko borrokatu naiz eta kasualitatez, Perurena auzokidea izan dut aurrean.

Mikel Saralegi

HARRIJASOTZAILEA



SOSLAIA

Lehena izatea helburu

Mikel Saralegi leitzarra hamabi urterekin hasi zen harriak altxatzen. 65 kilokoa izan zen jaso zuen lehena. Orduz geroztik, ordea, denbora ez da alferrik igaro eta 65 kilo haiek eze-rezean gelditzen dira orain arte jaso dituen 322 kiloen aldean. Aitaren afizioak bideratu zuen Mikel Saralegiren aukera, baita bere anai-arrebena ere, guztiak baitira aizkolariak. Saralegik harri-jasotzaileen artean lehena izan nahi zuen eta hori lortzeko borrokatu da. Beste asko bidean geldituko ziren, baina leitzarrek, 322 kiloko harria altxatu ondoren, bere helburua lortu du. Harriak jasotzeaz gain, Iruñeko Jolaskide gimnasioan irakasle da.

NOSKI JATOR

THE PRISON: Inshumisho's "bask-kountry-day" party. LOVE IS VERY STRONG. I SAY.



© Zaldi Erroa